

Pentekoste ondorengo igandean
HIRUTASUN GUZTIZ SANTUA (C)

Otoitza

Jainko Aita,
egiaren Hitza eta santutasunaren Espiritua mundura bidaliz,
zeure misterio miragarria agertu zenigun gizon-emakumeoi;
emaguzu, egiazko sinesmena aitortzen dugunoi
betiereko Hirutasunaren aintza ezagutzea
eta haren Batasun ahalguztiduna gurtzea.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA Es 8, 22-31

*Lurra izaten hasi baino lehenago
sortua izan zen Jakinduria.*

Esaera Zaharren liburutik

Honela mintzo da Jaungoikoaren jakinduria:
«Bere asmoen hasieran sortu ninduen Jaunak,
aspaldiko bere egintzen hasieran.
Aspaldienean nengoen ni eratua,
lurra izaten hasi baino lehenago.

Ur-handirik ez zenean sortu ninduen,
iturrik ez zenean.
Mendiak oinarrietan gogortu aurretik;
muinoak baino lehen sortu ninduen.
Lurra eta belarra, eta munduaren hauts-gaiak
oraindik egin gabe zeuzkan.

Zerua eratzen ari zenean, han nintzen ni;
ur-handi gaintetik sabaia ezarri zuenean;
zerua goian ipintzen zuenean,
eta ur-handiko iturriak antolatzen.

Itsasoari bere muga ipini zionean,
urak beren neurritik ez ateratzeko;
lurrari bere oinarria sendotu zionean,
Harekin nintzen ni argin-maisu bezala,

egunero Berari poz emanaz,
 beti Beraren aurrean jolasean;
 lurbiraren gainean jostatzen nintzen,
 eta gizakiekin nituen neure atseginak».

ERANTZUN SALMOA: Sal 8, 4-5. 6-7. 8-9

**R/. Jauna, gure Jauna,
 bai miragarria zure izena lurbira osoan!**

Zure behatzen lana den ortzia ikustean,
 han ipini dituzun ilargi-izarrak ikustean:
 Zer da gizakia, Zu hartaz oroi zaitezene?
 Edota gizasemea, Zu hartaz axola zaitezene? **R/.**

Aingeruak baino doi-doi txikiago egin duzu,
 ospez eta aintzaz koroatu duzu.
 Zeure eskulan guztien buru ipini duzu,
 guztia oinperatu diozu. **R/.**

Ardi eta idi guztiak,
 gainera lurreko abere guztiak;
 eguratseko hegazti eta itsasoko arrainak,
 itsas bidexketan dabilozanak. **R/.**

II. IRAKURGAIA: Erm 5, 1-5

*Jainkoarengana goaz, Kristori esker,
 Espirituaren bitartez eman zaigun maitasunean.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Fedearen bidez zuzentasuna iritsi dugunez gero, bakean gaude Jaungoikoarekin, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Berari esker zabaldu zaigu, sinesmenaren bidez, bizi garen grazia honetarako sarrera, eta harroturik gabiltza Jainkoaren seme-alaben aintzaren itxaropenean. Ez hori bakarrik; estualdietan ere harrotu egiten gara; jakinik, estualdiak eroapena dakarrela, eroapenak onbide sendoa, eta onbide sendoak itxaropena. Eta itxaropenak ez du huts egiten; Jaungoikoaren maitasuna gure bihotzetara isuria baitago, eman zaigun Espiritu Santuaren bitartez.

EBANJELIOA: Jn 16, 12-15

Aleluia: Ik. Ap 1, 8b

R/. Aleluia.

V/. Aintza Aitari, eta Semeari,
eta Espiritu Santuari;
baden eta bazen eta badatorren Jaungoikoari. **R/.**

*Aitak duen guztia nirea da;
Espirituak niretik hartuko du, eta zuei adieraziko.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Gauza asko dauzkat zuei esateko; baina orain ezin jaso dituzue; egiaren Espiritua datorrenean, ordea, Berak zuzenduko zaituzte egia osoraino. Hark ez baitu bere buruz esango ezer; entzundakoa esango dizue eta etorkizuna adieraziko. Hark goretsiko nau, niretik hartuko baitu, eta zuei adieraziko dizue.

Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet: "Niretik hartuko duela, eta zuei adieraziko"».

Oparigaien gainekoa

Zure izen santuari dei egiten diogu, Jauna;
egizu santu gure eskaintza hau
eta egin gaitzazu geu ere Zeuretzat betiko opari eder.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Hirutasun guztiz santuaren misterioa

V/. Jauna zuekin.
R/. Eta zure espirituarekin.
V/. Gora bihotzak.
R/. Jaunagan dauzkagu.
V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.
R/. Egoki da eta zuzen.

Egoki da, bai, eta zuzen,
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Zu, Aita,
zeure Seme bakarrarekin eta Espiritu Santuarekin,

Jainko bakarra zara, Jaun bakarra;
ez pertsona bakarra,
baizik eta izate batean hiru pertsona.

Eta, Zuk irakatsirik,
zure aintzaz sinesten duguna bera,
ezeren alderik gabe, aitortzen dugu,
bai zure Semeaz, bai Espiritu Santuaz.

Honela, egiazko eta betiko Jaungoiko aitortzen zaitugula,
aldi berean hiru pertsona gurtzen ditugu,
hirurak izate berekoak
eta handitasun berdina dutenak.

Zu zaituzte goresten aingeruek eta goi-aingeruek,
baita zeruko talde guztiek ere,
beti eta beti bihotz batez [esanez] kantari:
Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Jaungoiko gure Jauna,
betiereko Hirutasun santua eta haren Batasun hautsezina aitortu ditugu;
egizu, aurki dezagula hartu dugun sakramentu honetan
gorputz-arimen osasuna.
Jesu Kristo.